

Oloteko botikariaren bahiketan parte hartu zuela aitortu du atxilotu batek

Maria Angels Feliu gatibu izan zen zuloa topatu dute Sant Pere de Torellon

Erredakzioa / Donostia

Guardia Zibilak lau lagun atxilotu zituen atzo goizean Maria Angels Feliu Oloteko (Girona) botikariaren bahiketarekin zerikusia izan zutelakoan. Guardia Zibilaren arabera, atxilotuetako batek aitortu egin du bahiketan parte hartu zuela. Feliu 492 egunez gatibu izan zen etxea eta zuloa aurkitu dute segurtasun indarrek, Sant Pere de Torello herrian.

FELIUREN bahiketa Kataluniako azken hamarkadetakoz luzeena da, 492 egun iraun baitzuen. Argitzen ere zaila izan da, botikaria aske geratu eta lau urte igaro baitira norbaitek bertan parte hartu izana aitortu duen arte. Polizi iturriek ziurtatu dute operazioa oraindik zabalik dagoela eta agian atxilotu gehiago izango direla.

Atzo arratsalde amaieran lau ziren atxilotuak. Horieta-ko bat Antonio Guirado da, Oloteko udaltzain izandakoa eta biktimaren bizilaguna. Guardia Zibilaren arabera, Guiradok aitortu omen du berak egin zuela Feliu bahitzeko plana, zorak itota baitzegoen.

Guiradorekin batera atxilotu dituzte Ramon Ullastre eta haren emazte Montse Teixido. Horiena da Oloteko botikaria ezkatututa eduki omen zuten etxea, Sant Pere de Torello herrian (Bartzelona), Olotetik 40 kilometrorara. Ullastre iazko ekainean epaitu zuten, etxean arma mordo bat zuelako. Epaitegiak aske utzi zuten, zer egiten zuten ez zekiela argudiatuta.

Gordelekua Sant Pere de



PERE DURAN / EFE

Maria Angels Feliu eta senarra, 1994ko martxoaren 27an, botikaria aske geratu ostean egin lehenez agerraldian.

Torello inguruan egoteak ez du harridura handirik sortu. Izan ere, Feliuk Poliziari azaldu zion Casa Espina denda-kateko janaria eman ziotela bahitua izan zen bitartean. Etxe horretako dendak Osona eskualdean bakarrik dauka, eta hor dago Sant Pere de Torello. Osonako 500 etxe eta masia (hango baserriak) arakatu zituen Guardia Zibilak, baina ez zuen ezer aurkitu.

Atzoko operazioan atxilotutako beste laguna Jose Luis Paz da, Camprodon herrikoa (Girona). Bestalde, Xavier Bassa eta Joan Casals ere egon dira preso bahiketa horrengatik, eta orain auzipetuta daude, baina oraindik ez da argi geratu ekintzarekin zerikusi dutenetz.

Aske utzi zutenean, Feliuk ziurtatu zuen zortzi lagun ikusi zituela bahituta izan zen bitartean.

Diru gehiegi erakutsi zuten

Ikerketa gertuko iturrien arabera, Guirado eta besteak susmagarri bihurtu zituen bat-batean diru mugimendu handiak egin izanak. Guiradori amaitu egin zitzaizkion diru arazoak eta Ullastrek ziurtatu zuen loterian 90 milioi pezeta egokitu zitzaizkiola.

Uste denez, Feliutarrek 500 milioi pezeta ordaindu zituzten erreskate gisa. Oloteko botikariaren aita eskualdeko industriari ezagun bat da.

Feliu 1992ko azaroan hartu zuten gatibu eta 1994ko martxoaren 27an askatu zuten, Lliça de Munt-eko gasolindegian batean. Poliziari iskin egin eta erreskatea ordaindu ahal izateko, Control Risk enpresa britainiarra kontratatu zuen familiak.

Zigor handiagoak Anabel Seguraren bahitzaileentzat

Europa Press / Madril

AUZITEGI GORENAK handitu egin zituen atzo Anabel Segura gazte madrildarra bahitu eta hil zuten hiru lagun aurrakako zigorrak. Hala, Emilio Muñozek eta Candido Ortizek 43 urte eta sei hilabeteko zigorra bete behar dute, hau da, lehen baino lau urte eta zortzi hilabete gehiago jarri ditzakete. Felisa Garcia laguntzaileak sei hilabeteko kondena jaso zuen lehen, eta orain bi urte eta lau hilabetekoa du. 1993ko apirilean bahitu zuten Segura, eta egun berean, izuturik, hil.

Egoera nahasian hasi da CESIDeko entzuketan auziaren epaiketa

■ Fiskalak berak

errekurtsoa jarri du auzitegiaren aurka

Erredakzioa / Donostia

GIRO nahasian hasi zen atzo Madrilgo Entzutegi Probintzialean CESIDek Espainiako zerbitzu sekretuak, 1984tik 1990era bitartean ustez lege kanpo egindako telefono entzuketari buruzko epaiketa.

Bezperan hastekoa zen epaiketa, baina 24 ordu atzeratu zuten, Cesar Alonso Manglano CESIDeko buru ohiaren defentsak epaimahaia errefusatu baitzuen. Errefusa atzera bota zuen atzo epaimahaiak, baina orduan fiskalak epaileak errefusatu nahi izan zituen, instrukzioan parte hartu dutelakoan baitago. Epaimahaiak epaiketaren amaieran erabakiko du errefusatzeko horren inguruan.

Fiskalak Juan Alberto Perote koronel ohia soilik akusatzen du. Beste bederatzia akusazioek lau urte arteko zigorrak eskatzen dituzte Manglanorentzat eta beste sei agenteentzat.

Fiskalak eta akusazioek diotenez, CESIDek hainbat urtez entzun zituen sakelako telefonoen bidez egindako elkarrizketak. Entzuketan asmo ofiziala zen «terrorismoarekin edo droga trafikarekin» lotura zuten elkarrizketak entzutea, baina garai hartako teknologiak ez zuen telefono jakinak kontrolatzeko biderik ematen. Hala, espiek Juan Carlos Espainiako erregearen elkarrizketak ere entzun zituzten. Peroteren aginduz grabatutakoa gorde zuten, baina 1995ean, hura kargutik kentzean, grabaketak suntsitu zituzten.

l a b u r r e a n

B R E T A I N I A

■ Larunbatz geroztik hirugarren atentatua izan da Guichen herrian

GUICHEN herriko zerga-etxean (Ille et Villaine) tarteko indarreko lehergailu batek nahiko kalte larriak eragin zituen atzo goizaldean. Leherketa 03:15etan gertatu zen, eta ez zuen inor zauritu. Jendarmek uste dute Bretainiako Armada Iraultzaileak (ARB) egin duela atentatua. ARBk larunbatean Montroulezko zerga-etxeari eraso zion, eta herenegun, berriz, Paimpol herrikoari.

H U N G A R I A

■ Zazpi probintzia ur azpian

HUNGARIAKO ekialdeko zazpi probintzian egoera larria eragin dute uholdeek. Tisza ibaiak gainezka egin du eta mendietako elurra urtzen ari da. 9.500 etxe erortzeko arriskuan daudela uste dute agintariek.

F R A N T Z I A

■ Lau hil familia gatazka batean

GIZONEZKO batek emaztea eta euren bi haurrak erail zituen atzo, Suresne-

sen (Hauts-de-Seine), eta ondoren bere buruaz beste egin zuen. Gertaerak goizeko 05:30ak inguruan jazo ziren, eta senar-emazteen arteko lis- kar bat izan zen sorburua. Gizonak mailu eta botela puskekin ukaldika hil zuen emaztea, eta ondoren bere zainak ireki, 6 eta 8 urteko bi semeak besoetan hartu eta haiekin batera egoitza- tik —hirugarren solairua— jauzi egin zuen.

K A T A L U N I A

■ Pintura instituzioen aurka

UNIBERTSITARIOAK eta eskuaterren

aldeko gazteak, 1.800 inguru, elkartu ziren atzo Poliziak ostiralean Cornellan izandako jokaera salatze-ko. Manifestazioaren amaieran, ehunen bat gazteak pintura bota zuten Gobernu Ordezkaritzaren aurka eta gero borrokan aritu ziren Legebiltzarra zaintzen zeuden mossoekin.

E S P A I N I A

■ Jesus Cela Seoane GRAPOko presoak gose greba hasi du

SEOANE GRAPOko presoak gose greba hasi du Badajozko kartzelako zuzendaritzaren jarrera salatze-ko.